

Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.

Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2021eko martxoaren 23an egindako ohiko bilkuran, erakunde-adierazpen hau onartu zuela, aho batez:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 23 de marzo de 2021, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

“1960ko martxoaren 21ean, Sharpeville-ko (Hegoafrika) udal-mugartean, Hegoafrikako erregimenaren poliziak tiro egin zuen apartheidaren legeen eta Gobernuaren aurka era baketsuan protestatzeko bildu ziren manifestarien aurka, eta 69 pertsona hil eta 180 zauritu zituen. Horregatik, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Arraza Diskriminazioa Desagerrarazteko Nazioarteko Egun deklaratu zuen egun hori, eta arraza-diskriminazioa eta apartheidaren desagerraraztera bideratutako ekintza-programak abian jartzeko eskatu zien estatu kideei.

“El 21 de marzo de 1960, en el término municipal de Sharpeville (Sudáfrica), la policía del régimen sudafricano disparó contra las personas manifestantes que se habían reunido para protestar de forma pacífica contra las leyes favorables al apartheid y contra el Gobierno, matando a 69 personas e hiriendo a 180. Por ello, la Asamblea General de las Naciones Unidas declaró ese día Día Internacional de la Eliminación de la Discriminación Racial y, además, pidió a los estados miembros que pusieran en marcha un programa de acción dirigido a la eliminación de la discriminación racial y del apartheid.

Arazakeriaren aurkako nazioarteko egunean, aspaldi egindako izugarrikeria asko aipa ditzakegu, hala nola Espainiako kolonialismoa Amerikan, Europako kolonialismoa XIX. eta XX. mendeetan, Japoniak Korearen konkistan egindako basakeriak, Australiako politika zuria, nazismoa eta holokaustoa, Estatu Batuetako eta Britainia Handiko arraza-segregazioa, Jugoslaviako gerrak, Armeniako genozidioa eta Ruandako gobernu hutuak tutsiak sarraskitzeko egindako ahalegina.

En el día internacional contra el racismo, podemos traer a la memoria gran cantidad de atrocidades que se cometieron en el pasado: el colonialismo español en América, el colonialismo europeo de los siglos XIX y XX, las barbaridades llevadas a cabo por Japón en la conquista de Corea, la política blanca australiana, el nazismo y el holocausto, la segregación racial en los Estados Unidos y en Gran Bretaña, las guerras de Yugoslavia, el genocidio armenio y el intento de exterminio de la población tutsi por parte del gobierno hutu de Ruanda.

Gaur egun ikus dezakegunez ere, estatu eta pertsona talde batzuek ekintza arrazistak egiten jarraitzen dute, hala nola Israelgo Estatuak Palestinan, Marokok Sahara okupatuan, Txinak Tibetean eta Europak eta AEBek migrazio-politiken kasuan. Eta ez ditugu ahaztu behar errefuxiatuek Frantzia, Grezia eta Italia –besteak beste– beraientzako antolatutako eremuetan etengabe jasaten dituzten xenofobia-erasoak, migratzaileek Estatu espainoleko CIEtan jasotzen duten tratua txar arrazista nabarmena eta ijitoek oraindik ere jasaten duten tratua. Eraso hauek guztiak,

También en la actualidad vemos como tanto diferentes estados como varios colectivos de personas continúan llevando a cabo acciones racistas. Por poner algunos ejemplos, el Estado de Israel en Palestina, Marruecos en la zona ocupada del Sahara, China en el Tibet y Europa y EE.UU. en lo que respecta a las políticas migratorias. Y no debemos olvidar las personas refugiadas que en Francia, Grecia e Italia, entre otros lugares, continuamente soportan ataques xenófobos en los espacios organizados para ellas, el maltrato evidentemente racista que soportan las personas



herritarrak elkarrengandik urruntzeko erabiltzen diren hesi zein kontzertina, edota muga zein migrazio politiken inguruko nazioarteko itunen anparoan egiten direlarik, pertsonak mugitzeko eta asiloa eskatzeko duten eskubidea urratuz.

Giza eskubideak berdintasun-baldintzetan baliatu eta erabiltzeko aukeraren inguruko diskriminazioa, bereizketa, bazterkeria edo murrizketa helburu duten arraza-oinarriko ekintzak, jokabideak edo jarrerak justifikatzen dituzten ideien eta pentsamenduen multzoa da arrazakeria. Hori ez da pertsonak jaiotzen denetik daukan zerbait; aitzitik, ikasi egiten da arrazista izaten. Balioak erreproduzitzearen bidez eskuratzen den zerbait da. Izan ere, balio horiek errotagi daude kultura askotan historikoki, eta jendarte-baldintzek okerrera egiten dutenean era nabarmenagoan agertzen dira, diskurtso politiko edo teoria sasibiologiko eta/edo sozialetan oinarrituta. Gainera, erakundeek eta gobernuak bultzatu edo, gutxienez, babestu egin dute hori guztia, atzeritarren legearen, mugak eta kontzertinak ipintzearen edota biztanle-sektore jakin batzuk estigmatizatzearen bidez.

Gaur egun dugun osasun alarma egoeraren ondorioek, areagotu egin dituzte egiturazko indarkeria eta bazterkeria eta sistemaren arrakalak ageriaragoan gelditu dira. Gainera, krisi honek eskubide eta askatasun murrizketa ugari ekarri ditu.

Esate baterako, koronabirusaren kontrako prebentzio neurrien artean ez dira kontuan hartu CIE eta adin txikikoen zentroetako egoerak, espetxe eta errefuxiatu eremuetan askatasunik gabe dauden pertsonen egoerak ezta etxebizitzarik gabe dauden pertsonena ere. Pertsona horiek guztiak bizi duten zaurgarritasun egoerari Atzeritartasun Legeak eragindako ondorioak gehitu behar zaizkio.

Arrazakeriaren teoriak ekintza justifika ezinak justifikatzeko zein diskriminazio-sistemarik gabe ezarri ezin izango ziren produkzio-ereduak, ekonomia-ereduak eta jendarte-ereduak erreproduzitu eta iraunarazteko erabili izan dira. Eta diskriminazioa, edonola ere, arrazoi argi bategatik dago: ezarritako gizarte-ordenari eusteko eta biztanle batzuei eskubide zibil, politiko, sozial, ekonomiko edo kulturalak ukatzeko.

migrantes en las CIEs del Estado español y el trato que todavía hoy se da a las personas gitanas. Todos estos ataques, que se hacen al amparo de los muros, concertinas o fronteras que separan a unos ciudadanos y ciudadanas de otros o al abrigo de los tratados internacionales sobre políticas migratorias, vulneran el derecho que tienen las personas a trasladarse de un sitio a otro y a pedir asilo.

El racismo es un conjunto de ideas y pensamientos que justifican las acciones, conductas o actitudes en las que existen elementos de inspiración racial y que tienen por objetivo la discriminación, distinción, exclusión o restricción del goce y ejercicio de los derechos humanos en condiciones de igualdad. Esto no es algo innato en el individuo, sino que se aprende a ser racista. Es algo que se adquiere mediante la reproducción de valores. Esos valores están demasiado arraigados, históricamente, en muchas culturas y se hacen más evidentes en momentos en que las condiciones sociales empeoran, apoyándose en discursos políticos o en teorías pseudo biológicas o sociales. Además, instituciones y gobiernos fomentan o, cuando menos, amparan esas actuaciones, por ejemplo, por medio de leyes de extranjería, poniendo muros y concertinas o estigmatizando a sectores concretos de la población.

Las secuelas de la actual situación de alarma sanitaria han agravado la violencia estructural y la discriminación y las brechas del sistema. Además, esta crisis ha traído consigo numerosos recortes de derechos y libertades.

Por ejemplo, entre las medidas de prevención contra el coronavirus no se han tenido en cuenta las situaciones de los CIE y de los centros de menores, las situaciones de las personas privadas de libertad en las cárceles y campos de refugiados, ni las de las personas sin vivienda. A la situación de vulnerabilidad en la que se encuentran todas estas personas hay que añadir las consecuencias derivadas de la Ley de Extranjería.

Las “teorías del racismo” han sido utilizadas tanto para justificar actos injustificables como para reproducir y mantener modelos de producción, de economía y de sociedad que no se hubieran podido establecer sin un sistema de discriminación. Además, la discriminación existe por una causa clara: poder mantener el orden social establecido y negar una serie de derechos civiles, políticos, sociales, económicos o culturales a una parte de la población.



Horregatik, eta zinez uste dugulako Euskal Herria gure herrian bizi den orok osatzen duela eta bertan bizi den orok egiten duela, kultur aniztasunean eta tolerantziaren etikan oinarritutako erakunde-politikak indartzeko unea da.

Por eso, y porque creemos firmemente que el País Vasco está formado por todas las personas que habitan en nuestro país y lo conforma toda persona que viva en él, es el momento de fortalecer las políticas institucionales basadas en la diversidad cultural y en la ética de la tolerancia.

Hori dela-eta, arrazagatiko diskriminazioaren aurkako nazioarteko egunean, hauxe da Udaleko EH Bildu taldeak aurkeztutako

Por ello, en el día internacional contra la discriminación racial, el grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente

ERAKUNDE ADIERAZPENA

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

1.- Donostiako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio inmigrazioak Euskal Herriko hazkunde ekonomiko eta sozialean betetzen duen zeregina agerian utziko duten ikerketak sustatzeko.

1.- El Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Vasco a que promueva la realización de investigaciones que pongan de manifiesto el papel que juega la inmigración en el crecimiento económico y social de Euskal Herria.

2.- Donostiako Udalak konpromisoa hartzen du eta gainerako agintari eta erakunde publikoei arrazagatiko diskriminazioa sustatu edo bultzatzeko aukera eragozteko".

2.- El Ayuntamiento de San Sebastián asume el compromiso de impedir el fomento o impulso de la discriminación racial, y hace un llamamiento al resto de autoridades e instituciones públicas para que hagan suyo dicho compromiso".

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2021eko martxoaren 29an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 29 de marzo de 2021.

IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA

**ALKATEAK O. E. -
V.º B.º DEL ALCALDE:**